



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokiak hilaren 16an omenaldia egingo dio Beethoveni kontzertu berezi batekin, jaio zeneko 250. urteurrenarekin bat etorritz

- Marta Ubieta, Itziar de Unda, Olatz Saitua, Ana Otxoa, Maite Maruri, José Manuel Díaz, Fernando Latorre, Josu Cabrero eta Mikeldi Atxalandabaso arituko dira, Rubén Fdez. Aguirre pianistarekin batera.
- Artistek musikagilearen lieder onenak interpretatuko dituzte, eta baita taldeentzako Volkslieder batzuk ere, «Zorionak Ludwig» izeneko hitzordu berezian efemeridea ospatzeko.

Bilbon, 2020ko abenduaren 11n.- 1770eko abenduaren 16an jaio zen Alemaniako Bonn hirian musikaren historiako jenio handienetako bat: **Ludwig van Beethoven**. 2020ko abenduaren 16an, hau da, bost egun barru, 250 urte izango dira zorioneko egun horretatik.

Efemeride hori baliatuz, Arriaga Antzokiak «**Zorionak Ludwig**» kontzertu berezia antolatu du Beethovenen omenez, datorren asteazkenean. Gure lurraldeko bederatzi ahots handik eskainiko dute emanaldia, kalitate handiko eta ibilbide ezaguneko abeslariak biltzen dituen talentuaren erakusgarri. **Marta Ubieta, Itziar de Unda, Olatz Saitua, Ana Otxoa, Maite Maruri, José Manuel Díaz, Fernando Latorre, Josu Cabrero eta Mikeldi Atxalandabaso** Arriaga Antzokiko agertokira igoko dira **Rubén Fernández Aguirre** pianistarekin batera, Beethovenek konposatutako lieder onenetako batzuk eta taldeentzako Volkslieder batzuk interpretatzeko.

“Beethoven 250” Arriagan

Arriaga Antzokiak Beethoven jaio zeneko 250. urteurrena ospatzeko ikuskizun desberdinak antolatu ditu urtean zehar eta asteazkenekoa dugu azkena eta bereziena. Aurretik, gogoratu beharra dago, 2020ko otsaila eta maiatza bitartean, hiru emanalditako ziklo bat programatu zen (*Beethoven y la escuela vienesa*), baina zoritxarrez, hitzordu bakarra egin ahal izan genuen koronabirusaren erruz. Gero, ekainaren amaieran, antzokia berriro ireki ondoren, Arriaga Antzokiak eta Bilbao Orkestra Sinfonikoak (BOS) elkarrekin antolatutako ganbera kontzertua egin zuten, BOSen laukote batek eta zazpikote batek interpretatuta. Orain, Beethovenen jaiotegunarekin bat etorritz (abenduak 16), Arriaga Antzokia dotore jantziko da ospakizun horretarako: ZORIONAK, LUDWIG.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 18 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

ZORIONAK LUDWIG

Arriaga Antzokia, 2020ko abenduak 16
PROGRAMA

Guztiak batera

“Mir ist so wunderbar”
Fidelio operako laukotea

Ana Otxoa (sopranoa)

“Mignon” Op.75 nº 1
“Mit einem gemalten Band” Op.83 nº 3

Josu Cabrero (tenorra)

“Mailied” Op.52 nº 4
“Lied aus der Ferne” WoO 137

Josema Díaz (baritonoa)

“Die ehre Gottes aus der Natur” Op.48 nº 4
“Andenken” WoO 136

Maite Maruri (mezzo)

“Che fa il mio ben?” (L´amante impaziente) Op.82 nº 4
“Ecco quel fiero istante” (La partenza) WoO 124
“Che fa il mio ben?” (L´amante impaziente) Op.82 nº 3

Itziar de Unda (sopranoa)

“T´intendo, si, mio cor” (Liebes Klage) Op.82 nº 2
“Dimmi, ben mio” (Hoffnung) Op.82 nº 1

Mikeldi Atxalandabaso (tenorra)

“Der Kuss” Op.128
“Ich liebe dich” WoO 123

Olatz Saitua (sopranoa)

“Adelaide” Op.46

Fernando Latorre (baxu-baritonoa)

“In questa tomba oscura” WoO 133
“Man strebt, die Flamme zu verhehlen” WoO 120

Marta Ubieta (sopranoa)

“Wonne der Wehmut” Op.83 nº 1
“Neue liebe, neues Leben” Op.75 nº 2

Guztiak batera

“Hallelujah”
Kristo olibondoen mendian Oratoriotik

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus